

6. artikulua.– Kontratazio-araubidea.

Dekretu honen eraginpeko enkarguak betetzeko «Euskadiko Etxebizitza eta Lurra, E.A. / Sociedad de Vivienda y Suelo de Euskadi, S.A. (Visesa)» sozietate publikoak hirugarrenekin kontratatu beharreko jardura guztiek zorrotz beteko dituzte administrazio publikoen kontratu-arloko legeriaren berezko ebazpen guztiak.

XEDAPEN IRAGANKORRA.– Egikaritzen ari diren etxebizitza-sustapenak.

Dekretu hau indarrean jartzen den egunean kontratatu diren, esleitu diren edo egikaritze-bidean dauden alokairurako erregimen bereziko babes ofizialeko etxebizitzak, birkokatze-etxebizitzak eta zuzkidura-alojamentuen sustapenetan, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren organo eskudunak aukera izango du «Euskadiko Etxebizitza eta Lurra, E.A. / Sociedad de Vivienda y Suelo de Euskadi, S.A. (Visesa)» sozietate publikoari sustapenak amaitu arte egin beharreko jardunak agintzeko.

AZKEN XEDAPENA.– Indarrean jartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2007ko irailaren 11n.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburua,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.

5311

148/2007 DEKRETUA, irailaren 11koa, etxeko eremuan tratatu txarren biktimak diren emakumeen harerarako baliabideak arautzen dituen.

Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integraleko Neurri buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoak adierazten duen bezala, familia-eremuko genero-indarkeria edo bizikidetzaren indarkeria (etxeko tratatu txar deitzen zaiona) gure gizartearen dagoen desberdintasun-sinbolik basatieta eta Konstituzioak aldarrikatutako askatasunerako, berdintasunerako, bizitzarako, segurtasunerako eta diskriminaziorik ez jasateko oinarriko eskubideen aurkako aurreko erasoak da.

Artículo 6.– Régimen de contratación.

Todas las actividades que la sociedad «Euskadiko Etxebizitza eta Lurra, E.A. / Sociedad de Vivienda y Suelo de Euskadi, S.A. (Visesa)» haya de contratar con terceros en cumplimiento de los encargos objeto de este Decreto, habrá de realizarlas con estricto cumplimiento de las determinaciones propias de la legislación de contratos de las administraciones públicas.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA.– Promociones de vivienda en curso de ejecución.

En las promociones de vivienda de protección oficial en régimen especial y destino a alquiler así como de viviendas de realojo y alojamientos dotacionales que hubieren sido contratadas, adjudicadas o que se hallaren en curso de ejecución a la fecha de entrada en vigor de este Decreto, el órgano competente del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales podrá encomendar a la sociedad pública «Euskadiko Etxebizitza eta Lurra, E.A. / Sociedad de Vivienda y Suelo de Euskadi, S.A. (Visesa)» las actuaciones que resten hasta la finalización de las mismas.

DISPOSICIÓN FINAL.– Entrada en vigor.

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 11 de septiembre de 2007.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.

5311

DECRETO 148/2007, de 11 de septiembre, regulador de los recursos de acogida para mujeres víctimas de maltrato en el ámbito doméstico.

La violencia de género en el ámbito familiar o de convivencia, comúnmente denominada maltrato doméstico es, como señala la Ley Orgánica 1/2004, de 28 de diciembre, de Medidas de Protección Integral contra la Violencia de Género, el símbolo más brutal de la desigualdad existente en nuestra sociedad y constituye un ataque frontal a los derechos fundamentales de libertad, igualdad, vida, seguridad y no discriminación, proclamados por la Constitución.

Askotariko dimentsioak dituen gizarte-fenomeno hori gero eta protagonismo eta larritasun handiagoa hartzen ari denez gero, nazioarteko erakundeek behin eta berriz erantzun behar izan diote arazo horri. Horien artean, honako hauek azpimarra daitezke: 1979ko Emakumeen aurkako Diskriminazio Mota oro Desagerrarazteko Nazio Batuen Hitzarmena eta, ondoren, 1993ko abenduan, Nazio Batuen Batzar Nagusiak aldarrikatutako Emakumeen aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Adierazpena; Europako Parlamentuak 1986ko ekainaren 11ko Ebazpena, Emakumeen aurka egindako Erasoei buruzkoa; Pekinen 1995eko irailean egindako Emakumei buruzko Nazioarteko azken Goi Bileraren Ebazpenak; indarkeria osasun publikoko lehentasunezko arazotzat hartzen duen Osasunaren Munduko Batzarren WHA49.25 Ebazpena, OMEk 1996an emandakoa; Europako Parlamentuak Europar Batasun osoan emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean beharrezkoa den zero tolerantziari buruzko kanpaina bat egiteko beharri buruz egindako txostena, 1997ko uztaila; Nazio Batuen Giza Eskubideen Batzordeak Emakumeen aurkako Indarkeria Desagerrarazteko egindako 1997/44 Ebazpena; 1999. urtea Genero Indarkeriaren aurkako Borrokaren Europako Urte izendatzeko Adierazpena eta, duela gutxi, Europako Parlamentuaren 803/2004/EE Erabakia, haurren, gazteen eta emakumeen aurkako indarkeriari aurrea hartzeko eta aurre egiteko, eta biktimak eta arrisku-taldeak babesteko 2004-2008ko Erkidegoko Ekintza Programa (Daphne II Programa) onartzen duena.

Jarrera horien ildotik, azken urteotan funtsezko arau-aurrerapenak egin dira gure ordenamendu juridikoan. Estatu mailan, honako hauek azpimarratu behar dira: 11/2003 Lege Organikoa, irailaren 29koa, herritarren segurtasunaren arloko neurri zehatzei buruzkoa; 15/2003 Lege Organikoa, azaroaren 25koa, zigorkodeari, etxeko indarkeriari eta atzerritarren gizarteratzeari buruzko azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa aldatzen duena; 27/2003 Legea, uztailaren 31koa, etxeko indarkeriaren biktimak babesteko Agindua arautzen duena; 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, genero-indarkeriaren aurkako babes integralko neurriei buruzkoa; eta, duela gutxiago, 15/2005 Legea, uztailaren 8koa, Kode Zibila eta Prozedura Zibileko Legea banantzearen eta dibortzioaren arloan aldatzen dituen. Autonomia Erkidegoan, zalantzarik gabe, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea da erreferentziatzeko arau-esparrua. Horrez gain, arau-aurrerapenak inplementatzeko funtsezko tresna multzo bat du EAEk, hala nola sexu-erasoak eta etxeko tratu txarrak jasaten dituzten emakumei harrera hobea egiteko erakundeen arteko Akordioa, etxeko tratu txarrak jasaten dituzten emakumeentzako Segurtasun Plana (2002-2004), etxeko indarkeriaren biktimak babesteko Aginduaren eraginkortasuna gizarterbitzuen eremuan koordinatzeko Protokoloa, eta etxeko tratu txarren biktimei harrera eta etxebizitza emateko baliabideak hobetzeko Programa (2004-2005). Besteak beste, tresna multzo horrek gizarte-laguntza-

El creciente protagonismo y gravedad de este fenómeno social de múltiples dimensiones ha llevado a los organismos internacionales a pronunciarse sobre esta materia en repetidas ocasiones. Destacan así la Convención de las Naciones Unidas sobre la Eliminación de todas las Formas de Discriminación sobre la Mujer, de 1979 y, con posterioridad, su Declaración sobre la Eliminación de la Violencia sobre la Mujer, proclamada en diciembre de 1993 por la Asamblea General; la Resolución sobre las Agresiones a las Mujeres adoptada por el Parlamento Europeo el 11 de junio de 1986, las Resoluciones de la última Cumbre Internacional sobre la Mujer celebrada en Pekín en septiembre de 1995; la Resolución WHA49.25 de la Asamblea Mundial de la Salud declarando la Violencia como Problema Prioritario de Salud Pública adoptada, por la OMS, en 1996; el informe del Parlamento Europeo sobre la necesidad de realizar en toda la Unión Europea una campaña sobre tolerancia cero ante la violencia contra las mujeres, de julio de 1997; la Resolución 1997/44 de la Comisión de Derechos Humanos de Naciones Unidas sobre Eliminación de la Violencia contra la Mujer; la Declaración de 1999 como Año Europeo de Lucha Contra la Violencia de Género y, en fechas recientes, la Decisión n.º 803/2004/CE del Parlamento Europeo, por la que se aprueba un Programa de Acción Comunitario (2004-2008) para prevenir y combatir la violencia ejercida sobre la infancia, los jóvenes y las mujeres y proteger a las víctimas y grupos de riesgo (Programa Daphne II).

En la línea de estos posicionamientos, los últimos años han sido testigos de avances normativos esenciales en nuestro ordenamiento jurídico. Merecen ponerse de relieve, a nivel estatal, la Ley Orgánica 11/2003, de 29 de septiembre, de Medidas Concretas en materia de Seguridad Ciudadana, la Ley Orgánica 15/2003, de 25 de noviembre, por la que se modifica la Ley Orgánica 10/1995, de 23 de noviembre, de Código Penal, Violencia Doméstica e Integración Social de los Extranjeros, la Ley 27/2003, de 31 de julio, reguladora de la Orden de Protección de las Víctimas de la Violencia Doméstica, la Ley Orgánica 1/2004, de 28 de diciembre, de Medidas de Protección Integral contra la Violencia de Género y, más recientemente, la Ley 15/2005, de 8 de julio, por la que se modifican el Código Civil y la Ley de Enjuiciamiento Civil en materia de separación y divorcio. A nivel autonómico, el marco normativo de referencia viene dado, sin duda, por la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, pero la CAPV también se ha dotado de un conjunto de instrumentos esenciales en la implementación de los avances normativos, como son el Acuerdo Interinstitucional para la Mejora de la Atención a Mujeres Víctimas de Maltrato Doméstico y Agresiones Sexuales, el Plan de Seguridad para las Mujeres Víctimas de Maltrato Doméstico (2002-2004), el Protocolo de Coordinación para la eficacia de la Orden de Protección de las Víctimas de la Violencia Doméstica en el Ámbito de los Servicios Sociales, y el Programa para la Mejora de

ren eremuan etxeko tratu txarrak jasaten dituzten emakumeei premiazko harrera egiteko baliabideak bermatzeko premia ezartzen du formula iragankor gisa. Nolanahi ere, logikoa den bezala, familia-bizilekura itzultzeko edota beste etxebizitza batera joateko aukera errazteko beharrezkoak diren neurriak hartuko dira (bi kasuetan, tratu txarrak eman dituen pertsonaren urrutzea bermatuko da).

Dekretu hau testuinguru horretan kokatuta dago eta, Gizarte Zerbitzuei buruzko urriaren 18ko 5/1996 Legea eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea garatuz, etxeko tratu txarren biktimentzako harrera-baliabideen -harrera-zerbitzuen eta harrera-etxebizitzaren kalitatearen eta funtzionamenduaren baldintzak arautzea du helburu, lagundutako pertsonari (emakumeei zein haien kargu dauden haurrei eta nerabeei, edo bizikidetzaren unitate bereko mendeko helduei) eman beharrek harrera hobea bermatzeko. II., III. eta IV. kapituluetan, harrera-baliabide bakoitzari bere izaeraren arabera aplikatu beharrek baldintza materialak eta funtzionalak ezartzen dira. Baldintza horiek titulartasun publikoa zein pribatua duten baliabideen kasuan exijituko dira. Horren osagarri, titulartasun pribatuko harrera-baliabideak homologatzeko irizpideak biltzen dira V. kapituluaren Administrazio Publikoarekin ituntzeko aldeko baldintza gisa. Etxeko eremuan tratu txarrak jasaten dituzten emakumeentzako baliabideen multzoa osatzeko, Dekretuak emakume horiek sendatzeko eta gizarteratzeko zentro bat modu esperimentalean abian jartzea hartzen du kontuan. Zentro hori askotariko gizarte-problematikari lotutako premia bereziak (babes-maila eta espezializazio-maila handia eskatzen dutenak) dituzten emakumeei eta haien kargu dauden senitartekoei zuzenduta egongo da, eta intentsitate handiko gizarte-babeseko neurriak aplikatuko ditu. Azkenik, eta salbuespen gisa, xedapen iragankor batean zerbitzu horiek erabiltzeko aukera eskaintzen zaie herri-administrazio eskudunei, etxeko tratu txarrez bestelako genero-indarkeria moten biktimak diren emakumeei laguntzeko helburuarekin, egoera horiek gizarte-harrerako zentroei buruzko araudi baten esparruan esanbidez jasota geratu arte.

Gizarte-zerbitzuei buruzko urriaren 18ko 5/1996 Legearen 9.2 eta 10.3 artikuluek Eusko Jaurlaritzari esleitzen dizkioten gizarte-zerbitzuen arau-garapenaren eta antolamenduaren arloko eskumenak betez eman da Dekretu hau. Baimenari, erregistroari, homologazioari eta ikuskapenari lotutako jardunak Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen baimena, erregis-

los Recursos de Acogida y Vivienda para las Víctimas de Maltrato Doméstico (2004-2005). Entre otros dispositivos, este conjunto de instrumentos establece la necesidad de garantizar la existencia, en el ámbito de la atención social, de recursos que permitan la acogida de urgencia de las mujeres víctimas de maltrato en el ámbito doméstico, como fórmula transitoria, sin perjuicio, lógicamente, de articular las medidas necesarias para facilitar bien la vuelta al domicilio o alojamiento familiar, bien el acceso a otra vivienda, garantizando, en ambos supuestos, el alejamiento de la persona maltratadora.

El presente Decreto se enmarca en este contexto y pretende establecer, en desarrollo de la Ley 5/1996, de 18 de octubre, de Servicios Sociales y de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, la regulación de las condiciones de calidad y funcionamiento de los recursos de acogida para víctimas de maltrato doméstico -servicios de acogida inmediata y pisos de acogida-, con el fin de garantizar la mejor atención a las personas atendidas, tanto a las mujeres como a los niños, niñas o adolescentes a su cargo o a las personas adultas dependientes que formen parte de su unidad convivencial. Se establecen así en sus Capítulos II, III y IV los requisitos materiales y funcionales aplicables a cada tipo de recurso de acogida en función de su naturaleza, siendo los mismos exigibles tanto a los recursos de titularidad pública como a los de titularidad privada. Complementariamente, en el Capítulo V, se contemplan los criterios para la homologación de los recursos de acogida de titularidad privada como condición previa para su concertación con la Administración Pública. Así mismo, el Decreto completa la gama de recursos destinados a las mujeres víctimas de maltrato en el ámbito doméstico mediante la puesta en funcionamiento, con carácter experimental, de un centro de recuperación e integración social para mujeres víctimas de maltrato en el ámbito doméstico que cuente con medidas de protección social de alta intensidad, destinado a mujeres y familiares a su cargo con necesidades especiales asociadas a problemática social múltiple, que determinen la conveniencia de un alto nivel de protección y especialización. Por último, y con carácter excepcional, en disposición transitoria, se ofrece a las administraciones públicas competentes la posibilidad de utilizar estos servicios para atender a mujeres víctimas de formas de violencia de género diferentes del maltrato en el ámbito doméstico, y ello a la espera de que dichas situaciones queden explícitamente contempladas en el marco de una normativa reguladora de los centros de acogida social.

El presente Decreto se dicta en virtud de las competencias de desarrollo normativo y ordenación de los servicios sociales que los artículos 9.2 y 10.3 de la Ley 5/1996, de 18 de octubre, de servicios sociales atribuyen al Gobierno Vasco, quedando las actuaciones administrativas de autorización, registro, homologación e inspección sujetas a lo dispuesto en el Decreto 40/1998,

troa, homologazioa eta ikuskapena arautzen dituen mar-
txoaren 10eko 40/1998 Dekretuan xedatutakoari lotu-
ta geratzen dira.

Dekretu honek, etxeko eremuan tratatu txarrak jasa-
ten dituzten emakumeentzako harrera-baliabideei exi-
jitutako baldintza materialak eta funtzionalak arautzeaz
gain, harrera-baliabide horien jarduna zuzenduko du-
ten printzipio orokorrak ezarri eta erabiltzaileen esku-
bideak eta betebeharrak arautzen ditu.

Xedapen iragankorretan, alde batetik, indarrean jar-
rri eta urtebeteko epea aurreikusten du Dekretuak,
etxeko eremuan tratatu txarrak jasaten dituzten emaku-
meei zuzenduta dauden eta Dekretua indarrean jartzen
denean abian dauden harrera-baliabideen erakunde ti-
tularrek aginduzko funtzionamendu-baimena zein ho-
mologazioa eskatzeko, betiere itunduta badaude. Eskae-
ra sailkapenaren arabera aplikagarriak zaizkien baldin-
tza materialak eta funtzionalak bete ondoren egin be-
harko da, kokapenari, antolamendu-modalitateei, ezau-
garrii, edukierari eta azalerari lotutako baldintzak izan
ezik. Salbuespen hori dagoen baliabide-sarearen irau-
kortasuna eskaintzearen komenigarritasunak justifika-
tuko du.

Bestalde, Dekretua indarrean jartzean dauden titu-
lartasun publikoko baliabideek ere dagozkien baldin-
tzak bete beharko dituzte tipologiaren arabera, eta ti-
tularitasun pribatuko baimenaren kasuan deskribatu-
tako salbuespena aplikatuko zaie.

Hori guztia kontuan hartuta, Etxebizitza eta Gizar-
te Galetako sailburuaren proposamenez, Euskadiko
Aholku Batzorde Juridikoari jarraiki, eta Jaurlaritzaren
Kontseiluak 2007ko irailaren 11n egindako bilkuran
aldeztatik eztabaidatu eta onartu ondoren,

XEDATU DUT:

I. KAPITULUA
XEDAPEN OROKORRAK

1. *artikulua*.– Xedea eta aplikazio-eremua.

1.– Gizarte Zerbitzuei buruzko urriaren 18ko
5/1996 Legea eta Emakumeen eta Gizonen Berdinta-
sunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea garatuz, eta
Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen bai-
mena, erregistroa, homologazioa eta ikuskapena arau-
tzen dituen martxoaren 10eko 40/1998 Dekretuan au-
rreikusitakoari jarraiki, etxeko eremuan tratatu txarrak
jasaten dituzten emakumei zuzenduta eta EAEko lur-
ralde-eremuan kokatuta dauden harrera-baliabideen
kalitaterako eta funtzionamendurako gutxieneko iriz-
pideak eta baldintzak erregelamenduz ezartzea du xe-
de Dekretu honek, baliabide horien titulartasuna edo
zein izanik ere.

2.– Dekretu honen ondorioetarako, gaur egungo edo
aurreko familia-harreman edo harreman afektibo baten

de 10 de marzo, por el que se regula la autorización,
registro, homologación e inspección de los servicios so-
ciales en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Además de regular los requisitos materiales y fun-
cionales exigibles a los recursos de acogida para muje-
res víctimas de maltrato en el ámbito doméstico, este
Decreto también establece los principios generales que
regirán la actuación de esos recursos de acogida, y re-
gula los derechos y deberes de las personas usuarias.

En sus disposiciones transitorias prevé, por un lado,
el plazo de un año, a partir de su entrada en vigor, pa-
ra que las entidades titulares de los recursos de acogida
para mujeres víctimas de maltrato en el ámbito do-
méstico que se encuentren en funcionamiento a la en-
trada en vigor del Decreto soliciten tanto la precepti-
va autorización de funcionamiento, como la homologa-
ción, en el supuesto de que estuvieren concertados; es-
ta solicitud deberá hacerse previo cumplimiento de los
requisitos materiales y funcionales que les sean de apli-
cación en atención a su clasificación, a excepción de los
requisitos de ubicación, modalidades organizativas, ca-
racterísticas, capacidad y superficie, justificándose esta
excepción por la conveniencia de facilitar la permanen-
cia de la red de recursos ya existente.

Los recursos de titularidad pública ya existentes a la
entrada en vigor del Decreto, por su parte, también de-
berán cumplir los requisitos correspondientes en fun-
ción de su tipología, siéndoles de aplicación la excep-
ción ya descrita en relación con la autorización de los
de titularidad privada.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Vivien-
da y Asuntos Sociales, de acuerdo con el dictamen de
la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, y previa de-
liberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su
sesión celebrada el día 11 de septiembre de 2007.

DISPONGO:

CAPÍTULO I
DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1.– Objeto y ámbito de aplicación.

1.– En desarrollo de la Ley 5/1996, de 18 de octu-
bre, de Servicios Sociales y de la Ley 4/2005, de 18 de
febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, y en
conformidad con lo previsto en el Decreto 40/1998, de
10 de marzo, por el que se regula la autorización, re-
gistro, homologación e inspección de los servicios so-
ciales de la Comunidad Autónoma del País Vasco, el
presente Decreto tiene por objeto establecer reglamen-
tariamente los criterios y condiciones mínimas de cali-
dad y funcionamiento de los recursos de acogida para
mujeres víctimas de maltrato en el ámbito doméstico,
situados en el ámbito territorial de la CAPV, cualquie-
ra que sea su titularidad.

2.– A los efectos de este Decreto se considera mal-
trato en el ámbito doméstico la violencia física, psíquic-

eremuan emakumearen aurka egiten den, emakumea mendean hartzeko, azpian edukitzeko eta harreman horretan agintea eta boterea izateko helburua duen, eta emakumearengan sufrimendua edo osasun fisikoaren edo psikikoaren kaltea eragin dezakeen indarkeria fisiko, psikikoa, sexuala edo bestelakoa hartzen da etxeko eremuko tratu txartzat.

2. artikulua.— Sailkapena.

1.— Dekretu honen ondorioetarako, etxeko eremuan tratu txarrak jasaten dituzten emakumeentzako harreman-baliabideak honela daude sailkatuta:

a) Berehalako eta egonaldi laburreko zerbitzuak. Eguneko hogeita lau orduetan daude eskuragarri, urteko egun guztietan. Etxeko eremuan tratu txarrak jasaten dituzten emakumeei berehala egiten diete harrera, haien premiak balioesteko beharrezkoa den aldian, baliabiderik egokienera bidali aurretik. Baliabide mota horri aplikatu beharreko baldintza materialak eta funtzionalak, titulartasuna publikoa nahiz pribatua izanik ere, I. eranskinean araututa daude.

b) Egonaldi ertaineko edo luzeko harrera-etxebizitzak. Etxeko eremuan tratu txarrak jasaten dituzten emakumeen aldi baterako babes-eskarietara eta ostatu-eskarietara erantzutea dute helburu. Baliabide mota horri aplikatu beharreko baldintza materialak eta funtzionalak, titulartasuna publikoa nahiz pribatua izanik ere, II. eranskinean araututa daude.

c) Egonaldi ertaineko edo luzeko harrera-zentroak. Etxeko eremuan tratu txarrak jasaten dituzten eta esku-hartze espezializatu integrala behar duten emakumeen aldi baterako babes-eskarietara eta ostatu-eskarietara erantzutea dute helburu. Baliabide mota horri aplikatu beharreko baldintza materialak eta funtzionalak, titulartasuna publikoa nahiz pribatua izanik ere, III. eranskinean araututa daude.

2.— 1. idatz-zatian aurreikusitako harrera-baliabideen sorta eta sarea osatzeko, etxeko eremuan tratu txarrak jasaten dituzten emakumeak sendatzeko eta gizarteratzeko zentro bat modu esperimentalean abian jarzea aurreikusten da. Zentro hori askotariko gizarte-problematikari lotutako premia bereziak (babes-maila eta espezializazio-maila handia eskatzen dutenak) dituzten emakumeei eta haien kargu dauden senitartekoei zuzenduta egongo da, eta intentsitate handiko gizarte-babeseko neurriak aplikatuko ditu. Intentsitate handiko zentro hori sortzeko ardura Eusko Jaurlaritzari dagokio, 8.2 artikuluan jasotako baldintzetan.

3. artikulua.— Etxeko eremuan tratu txarrak jasaten dituzten emakumeentzako harrera-baliabideen helburuak.

Etxeko eremuan tratu txarrak jasaten dituzten emakumeentzako harrera-baliabideen helburuak honako hauek dira:

a) Etxeko eremuan tratu txarrak jasan izanaren ondorioz ohiko bizilekua aldatzera behartuta dauden emakumeei, edo haien mende dauden pertsonetara (haien kar-

ca, sexual o de otra índole que se ejerce contra la mujer en el ámbito de una relación familiar y/o afectiva actual o previa con el fin de someterla, dominarla y mantener una posición de autoridad y poder en la relación y que tenga o pueda tener como resultado sufrimiento o daño en su salud física o psíquica.

Artículo 2.— Clasificación.

1.— A los efectos del presente Decreto, los recursos de acogida para mujeres víctimas de maltrato en el ámbito doméstico se clasifican en:

a) Servicios de acogida inmediata, de corta estancia, accesibles durante las veinticuatro horas del día, todos los días del año, que acogen a las mujeres víctimas de maltrato doméstico con inmediatez y durante el periodo necesario para la valoración de sus necesidades con carácter previo a su derivación al recurso más idóneo. Los requisitos materiales y funcionales aplicables a este tipo de recurso, independientemente de su titularidad pública o privada, se regulan en el anexo I.

b) Pisos de acogida, de media o larga estancia, destinados a atender demandas de protección y alojamiento temporal de mujeres víctimas de maltrato en el ámbito doméstico. Los requisitos materiales y funcionales aplicables a este tipo de recurso, independientemente de su titularidad pública o privada, se regulan en el anexo II.

c) Centros de acogida, de media o larga estancia, destinados a atender demandas de protección y alojamiento temporal de mujeres víctimas de maltrato en el ámbito doméstico que precisen una intervención especializada integral. Los requisitos materiales y funcionales aplicables a este tipo de recurso, independientemente de su titularidad pública o privada, se regulan en el anexo III.

2.— Al objeto de completar la gama y la red de recursos de acogida previstos en el apartado 1, se prevé la creación y puesta en funcionamiento de un centro de recuperación e integración social para mujeres que han sido víctimas de maltrato en el ámbito doméstico que cuente con medidas de protección social de alta intensidad, destinado a mujeres y familiares a su cargo con necesidades especiales asociadas a problemática social múltiple, que determinen la conveniencia de un alto nivel de protección y especialización. La creación de este centro de alta intensidad corresponderá al Gobierno Vasco, en los términos contemplados en el artículo 8.2.

Artículo 3.— Objetivos de los recursos de acogida para mujeres víctimas de maltrato en el ámbito doméstico.

Los objetivos de los recursos de acogida para mujeres víctimas de maltrato en el ámbito doméstico son:

a) Facilitar un alojamiento temporal a las mujeres que se ven obligadas o precisan abandonar su domicilio o alojamiento habitual como consecuencia de una

gu dauden seme-alabei -adin txikikoak direnei zein ez direnei- edo haien mende dauden helduei) aldi baterako ostatua ematea.

b) Pertsona horiei beren egoera pertsonalean eta familia-egoeran beharrezkotzat edo egokitzat hartzen dituzten aldaketak egiteko, eta horretarako erabakiak hartzeko astia eta babes egokiak ingurune seguru batean izateko aukera eskaintzea.

c) Emakumeen autonomia pertsonala sustatzea egotzari egokiro aurre egin ahal izan diezaien, eta, horretarako, beharrezkoa den aholkularitza, informazioa eta laguntza eskaintzea eta babes-baliabiderik egokienak eskuratzeko aukera ematea.

d) Premietara egokitutako laguntza eta gizarte-babes trinkoa ematea.

e) Lagundutako pertsonen segurtasun fisikoa eta psikikoa eta, bereziki, harrera-baliabideen kokapenaren konfidentzialtasuna bermatzea, babes-funtzioak bete behar dituzten eragile publiko judizialei edo polizialei dagokienez izan ezik.

4. artikulua.- Printzipio gidariak.

Etxeko eremuan tratatu txarrak jasaten dituzten emakumeentzako harrera-baliabideen printzipio gidariak honako hauek izango dira:

a) Hartutako pertsonen eskubideen babesa eta defentsa, ingurune seguru batean bizi ahal izan daitezen, eta garapen pertsonalerako eta beren potentziala autoafirmazio pertsonaleko prozesu baten esparruan aske eta erabat garatzeko eskubidea baliatu ahal izan dezaten.

b) Prebentzioa, harrera jasotzen duten emakumeek, haien kargu dauden haurrek eta nerabeek, edo bizikidetzaren unitate bereko mendeko pertsona helduek tratatu txarrik edo tratatu txarren arriskurik berriz jasan ez dezaten.

c) Etxeko eremuan tratatu txarrak jasaten dituzten emakumeen seme-alaben zaintza eta babesa, haien eskubideak, ongizatea eta garapen integrala bermatzeko. Nolanahi ere, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legean aldarrikatutako haurren eta nerabeen interes gorena hartuko da kontuan.

d) Normalizazioa, pertsona egoiliarren bizimodua bizitzaren esparru guztietan gainerako herritarrentzat normalizat hartzen den bizimoduarekin parekatzeko.

e) Esku-hartzea, emakumeek eta familia-unitateek beren trebetasunak garatzeko edo, hala badagokio, gizarte-bizitzan eta lan-bizitzan erabat eta era normalizatuan parte hartzeko beharrezkoak diren trebetasunak eskuratzeko aukera izan dezaten.

f) Erabiltzaileen autonomia pertsonalaren sustapena.

situación de maltrato en el ámbito doméstico así como a las personas que dependen de ellas, ya se trate de hijos o hijas a su cargo, sean o no menores de edad, o de personas adultas dependientes.

b) Ofrecer a estas personas la posibilidad de disponer, en un entorno seguro, del tiempo y de los apoyos adecuados para poder abordar los cambios que estimen necesarios y deseables en su situación personal y familiar, y para poder adoptar las decisiones que los hagan posibles.

c) Promover su autonomía personal para hacer frente de forma adecuada a su situación, ofreciéndoles el asesoramiento, la información y el acompañamiento necesarios, y facilitando su acceso a los recursos de apoyo más idóneos.

d) Facilitar acompañamiento y protección social con carácter intensivo, adecuado a las necesidades.

e) Garantizar la seguridad física y psíquica de las personas atendidas, en particular garantizando el carácter confidencial de la ubicación de los recursos de acogida, excepto con respecto a los agentes públicos judiciales o policiales que deban ejercer sus funciones de protección.

Artículo 4.- Principios rectores.

Los recursos de acogida para mujeres víctimas de maltrato en el ámbito doméstico se registrarán por los siguientes principios:

a) Protección y defensa de los derechos de las personas acogidas, procurando que puedan vivir en un entorno seguro y que puedan ejercer su derecho a desarrollarse y a desarrollar su potencial libre y plenamente, en el marco de un proceso de autoafirmación personal.

b) Prevención, evitando que se reproduzcan situaciones de maltrato o de riesgo de maltrato, tanto en las mujeres acogidas como en los niños, niñas y adolescentes a su cargo o en las personas adultas dependientes que formen parte de su unidad convivencial.

c) Atención y protección de las hijas e hijos de las mujeres víctimas de maltrato en el ámbito doméstico, en orden a garantizar sus derechos, su bienestar y su desarrollo integral, atendiendo, en todo caso, al interés superior de los niños, niñas y adolescentes proclamado en la Ley 3/2005, de 18 de febrero, de atención y protección a la infancia y la adolescencia.

d) Normalización, con el propósito de que el modo de vida de las personas residentes se ajuste al máximo en todos los órdenes de la vida a las consideradas como normales para el resto de la ciudadanía.

e) Intervención, procurando que las mujeres y las unidades familiares acogidas tengan la posibilidad de desarrollar sus habilidades o, en su caso, de adquirir, las habilidades necesarias para participar plenamente, y de forma normalizada, en la vida social y laboral.

f) Promoción de la autonomía personal de las personas usuarias.

g) Hartutako pertsonen parte-hartzea baliabidearen funtzionamendu orokorrean.

h) Erabiltzaileen premietara egokitutako zaintza pertsonalizatua eta integrala.

i) Profesionalizazioa, baliabideak bete beharreko funtzioei dagokien kualifikazio teknikoa duten profesionalen esku egon daitezten. Profesional horiek lana behar bezala egiteko baliabide eta bitarteko egokiak eta nahikoak izan beharko dituzte.

j) Eraginkortasuna eta arintasuna harrera-zerbitzuak ematean, eta babeseko, aholkularitzako eta laguntzako zerbitzuetara edo kasu bakoitzaren premietarako harrera-baliabide egokienetara orientatzean eta bideratzean.

k) Koordinazioa zaintza-eremu horretan diharduten erakundeekin eta entitate publiko eta pribatuekin, eta egungo baliabideen sarearekin, biktimen gizarte-babes trinkora eta osatze integralera bideratua.

l) Instantzia judizialekiko eta polizialekiko lankidetzatza.

5. artikulua.— Hartutako pertsonak.

Dekretu honetan araututako harrera-baliabideetan lagundutako pertsonak honako hauek izango dira:

a) Aldi baterako eta premiazko babesaren eta ostatuaren beharra duten, eta etxeko eremuan tratu txarrak jasan izanagatik ohiko bizilekua utzi behar duten eta horrelako zerbitzu bat behar duten emakume adindunak edo emantzipatuta dauden adin txikikoak.

b) a) idatz-zatian adierazitako emakumeen mendeko pertsonak, hots, haien kargu dauden seme-alabak (adin txikikoak diren edo ez diren kontuan hartu gabe) edo mendeko helduak, betiere bizikidetzaren unitate berekoak badira. Ondorio horietarako, hartutako emakumearen guraso-aginteari, tutoretzari, kuratelari edo zaintzari lotuta dauden adin txikikoak hartuko dira emakumeen kargu dauden adingabetzat, emakumeek aginte horiek eraginkortasunez eta eskusiboki erabiltzen dituztenean, edota, beste pertsona batekin batera erabiliz gero, arrisku-egoerak saihesteko pertsona horiek emakumearekin bizitzea komeni denean, edo agintaritzatza eskudunak hori xedatzen duenean.

6. artikulua.— Erabiltzaileen eskubideak.

1.— Oro har, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna, eta iradokizunen eta kexen araubidea onartzen dituen apirilaren 6ko 64/2004 Dekretuan jasotako eskubideak izango dituzte hartutako pertsonak.

2.— Berariaz, Dekretu honetan araututako harrera-baliabideetan hartutako pertsonak honako eskubide hauek izango dituzte:

g) Participación de las personas acogidas en el funcionamiento general del recurso.

h) Atención personalizada e integral adaptada a las necesidades de las personas usuarias.

i) Profesionalización, con el propósito de que los recursos sean atendidos por profesionales con la cualificación técnica correspondiente a las funciones que desempeñan, debiendo contar siempre con los medios y recursos idóneos y suficientes para desarrollar su trabajo.

j) Eficacia y agilidad en la prestación de los servicios de acogida y en la orientación y derivación hacia los servicios de apoyo, asesoramiento y acompañamiento o hacia los recursos de acogida que resulten más adaptados a las necesidades de cada caso.

k) Coordinación con las instituciones y entidades públicas y privadas que actúan en este ámbito de atención, así como con la red de recursos existentes, orientada a la protección social intensiva y a la recuperación integral de la o las víctimas.

l) Cooperación con las instancias judiciales y policiales.

Artículo 5.— Personas acogidas.

Las personas atendidas en los recursos de acogida regulados en el presente Decreto serán:

a) Mujeres mayores de edad o menores emancipadas en situación de necesidad de protección y alojamiento temporal y urgente que se ven obligadas a abandonar su domicilio o alojamiento habitual por una situación de maltrato en el ámbito doméstico y precisan un servicio de estas características.

b) Las personas que dependen de las mujeres a las que se refiere el apartado a), ya se trate de hijos o hijas a su cargo, sean o no menores de edad, o de personas adultas dependientes, siempre que pertenezcan a la misma unidad convivencial. A estos efectos, tendrán la consideración de menores a cargo las personas menores de edad sujetas a patria potestad, tutela, curatela o guarda de la mujer acogida, cuando dichas potestades se ejerzan efectivamente y de forma exclusiva por ésta, o cuando, de ejercerlas de manera compartida con otra persona, resulte conveniente, a fin de evitar situaciones de riesgo, que tales personas convivan con la mujer, o cuando así lo disponga la autoridad competente en su caso.

Artículo 6.— Derechos de las personas usuarias.

1.— Con carácter general, las personas acogidas disfrutará de los derechos contemplados en el Decreto 64/2004, de 6 de abril, por el que se aprueba la Carta de derechos y obligaciones de las personas usuarias y profesionales de los servicios sociales en la Comunidad Autónoma del País Vasco y el régimen de sugerencias y quejas.

2.— Con carácter específico, las personas acogidas en los recursos de acogida regulados en el presente Decreto, disfrutará de los siguientes derechos:

a) Baliabidean irauteko eskubidea, Dekretu honetan egonaldia amaitzeko adierazitako arrazoiren bat agertzen ez den bitartean.

b) Hartutako bizikidetzaren unitateko kide guztiak elkarrekin egoteko eskubidea. Horretarako, baliabide berean hartuko dira denak.

c) Datu pertsonalen babeserako eta konfidentzialtasunerako eskubidea.

d) Harrera-baliabidearen instalazioak eta baliabidean dauden erabilera komuneko objektuak, ekipamenduak eta tresnak erabiltzeko eskubidea.

e) Gaur egun dauden baliabide sozialei, psikologikoei, sanitarioei, hezkuntza-arlokoiei, kultura-arlokoiei, judizialei eta pertsona horien profilerak eta premietara egokitutako beste batzuei, eta horiek lortzeko moduari buruzko informazioa eta aholkularitza jasotzeko eskubidea.

f) Harrera-baliabideetan dauden bitartean gizarte-eta hezkuntza-arloko eta laguntzako programa batean txertatzeko eskubidea.

g) Baliabidearen eskaera idatziz egiteko eta bost egun naturaleko gehieneko epean idatzizko erantzuna jasotzeko eskubidea.

h) Laguntza indibiduala eta familia-arlokoa, eta pertsonalizatua jasotzeko eskubidea.

i) Norberaren borondatez zerbitzuak erabiltzeari edo zentroan egoteari uzteko eskubidea.

j) Eskubide horien edukiri eta eskubide horiek baliabide bidei buruzko informazioa erraz ulertzeko moduan jasotzeko eskubidea.

7. *artikulua*.– Hartutako pertsonen betebeharrak.

1.– Oro har, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna, eta iradokizunen eta kexen araubidea onartzen dituen apirilaren 6ko 64/2004 Dekretuan jasotako betebeharrak izango dituzte hartutako pertsonak.

2.– Berariaz, Dekretu honetan araututako harrera-baliabideetan hartutako pertsonak honako betebeharrak izango dituzte:

a) Sartzeko eskaeraren dokumentua sinatzea, eta barne-araudian eta adierazitako eskaera-dokumentuan ezarritako arauak betetzeko konpromisoa hartzea.

b) Gizarte-zerbitzuek eskatutako dokumentazioa dagokion epean aurkeztea.

c) Beren seme-alaben edo beren kargu dauden beste pertsona batzuen zaintzaz arduratzea.

d) Baliabidea erabiltzen duten gainerako pertsonen pentsamendu-askatasuna, iritzi-askatasuna, ideologia-askatasuna eta erlijio-askatasuna errespetatzea.

a) Derecho a permanecer en el recurso mientras no concurra alguna de las causas de finalización de la estancia, señaladas en este Decreto.

b) Derecho a que todos los miembros de la unidad convivencial acogidos puedan permanecer juntos, debiendo, a tal efecto, ser atendidos en el mismo recurso.

c) Derecho a la confidencialidad y a la protección de los datos de carácter personal.

d) Derecho a hacer uso de las dependencias del recurso de acogida y de los objetos, equipamientos y utensilios de uso común que se encuentren en él.

e) Derecho a ser informadas y asesoradas sobre los recursos existentes de carácter social, psicológico, sanitario, educativo, cultural, judicial u otros que se ajusten a su perfil y a sus necesidades, y sobre cómo acceder a ellos.

f) Derecho a acceder a un programa socioeducativo y de acompañamiento durante su estancia en los recursos de acogida.

g) Derecho a formalizar su solicitud del recurso por escrito y ser respondidas por escrito en un plazo no superior a cinco días naturales.

h) Derecho a una atención individual y familiar, y personalizada.

i) Derecho a cesar en la utilización de los servicios o en la permanencia en el centro por voluntad propia.

j) Derecho a ser informadas, en un lenguaje fácilmente comprensible, del contenido de estos derechos y de los cauces para hacer efectivo su ejercicio.

Artículo 7.– Deberes de las personas acogidas.

1.– Con carácter general, las personas acogidas deberán cumplir las obligaciones contempladas en el Decreto 64/2004, de 6 de abril, por el que se aprueba la Carta de derechos y obligaciones de las personas usuarias y profesionales de los servicios sociales en la Comunidad Autónoma del País Vasco y el régimen de sugerencias y quejas.

2.– Con carácter específico, las personas acogidas en los recursos de acogida regulados en el presente Decreto tendrán los siguientes deberes y obligaciones:

a) Firmar el documento de solicitud de ingreso y comprometerse a cumplir las normas establecidas en el reglamento de régimen interior y en el mencionado documento de solicitud.

b) Aportar la documentación requerida por parte de los servicios sociales en el plazo debido.

c) Responder del cuidado de sus hijos e hijas o de otras personas a su cargo.

d) Respetar la libertad de pensamiento, opinión, ideología y religión de las personas con las que se comparte el recurso.

e) Hartutako pertsonen artean gatazkarik edo desadostasunik izanez gero, erakunde arduradunak erabakitako neurriak betetzea.

f) Baliabidearen helbidea eta telefono-zenbakia anonimatu gordetzea. Beste erakunde publiko batzuek bizilekuaren datuak eskatzen dituztenean eman behar da, erreferentzia gisa, oinarritzko gizarte-zerbitzuen edo zerbitzu horren erakunde arduradunaren helbidea.

g) Elkarbizitza errazteko elkarren arteko errespetuan, tolerantzian eta lankidetzan oinarritutako jarrera agertzea, eta hori bermatuko duten barne-arauak betetzea.

h) Etxebizitzan eskuragarri dituzten objektuak, ekipamenduak eta tresnak egokiro eta errespetuz erabiltzea.

i) Baliabidearen instalazioetan nahita edo zaborke-ria larriagatik eragindako kalteez erantzutea.

j) Zerbitzuan hartuta ez dauden edo langile baimenduak ez diren pertsonen baliabideak erabiltzen ez uztea, arduradunen esanbidezko baimena dutenean izan ezik.

k) Baliabidean animaliarik ez izatea, zakur gidariei buruzko azaroaren 21eko 17/1997 Legean jasotako baldintzetan edota baliabidearen ardura duen erakundeak esanbidez baimendutako beste kasu batzuetan izan ezik.

l) Erreferentziatzko gizarte-zerbitzuek landutako plan indibiduala edo familia-plana betetzea.

8. artikulua.- Eskumena.

1.- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 57. artikuluari jarraiki, foru-administrazioek eta toki-administrazioek, beren eskumenen eremuan, etxeko eremuan tratatu txarrak jasaten dituzten emakumeen aldi baterako babes-premiei eta ostatu-premiei erantzuteko nahikoak izango diren harrera-baliabideak bermatu behar dituzte. Horretarako:

a) 20.000 biztanletik gorako udalerriek, eta eratu dauden edo gizarte-zerbitzuak emateko eratzten diren eta adierazitako biztanle kopurua gaitzen duten mankomunitateek etxeko eremuan tratatu txarrak jasaten dituzten emakumeen aldi baterako babes-premiei eta ostatu-premiei erantzuteko harrera-baliabide bat izan behar dute gutxienez.

b) Foru Aldundiek 20.000 biztanletik beherako udalerrien eskariari erantzuteko harrera-baliabide bat bermatu behar dute gutxienez, a) idatz-zatian adierazitako baldintzetan mankomunitate bat osatzen ez dutenean. Halaber, dagokien Lurralde Historikoaren eskariari erantzuteko berehalako harrera-zerbitzu bat bermatu behar dute.

e) Observar las medidas acordadas por la entidad responsable del recurso en caso de conflictos o desacuerdos entre las personas acogidas.

f) Mantener en el anonimato la dirección y el teléfono del recurso, debiendo dar como referencia la dirección del servicio social de base o de la entidad responsable del mismo, cuando los datos de domicilio y residencia sean requeridos por otras instituciones públicas.

g) Observar una conducta basada en el respeto mutuo, la tolerancia y la colaboración, con el propósito de facilitar la convivencia, y cumplir las normas internas que así lo garanticen.

h) Hacer un uso adecuado y respetuoso de los objetos, equipamientos y utensilios a su disposición en la vivienda.

i) Responder de los daños causados intencionalmente o por negligencia grave, en las dependencias del recurso.

j) No permitir el acceso a los recursos a personas que no estén acogidas en dicho servicio o que no formen parte del personal autorizado, salvo que exista autorización expresa de las personas responsables del mismo.

k) No tener animales en el recurso, salvo en los términos contemplados en la Ley 17/1997, de 21 de noviembre, de perros-guía, o en otros casos excepcionales expresamente autorizados por la entidad de la que depende el recurso.

l) Cumplir el plan individual o familiar de atención elaborado desde los servicios sociales de referencia.

Artículo 8.- Competencia.

1.- De acuerdo con el artículo 57 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, las administraciones forales y locales, en el ámbito de sus competencias, deben garantizar la existencia de recursos de acogida suficientes para atender las necesidades de protección y alojamiento temporal de las mujeres víctimas de maltrato en el ámbito doméstico. A tales efectos:

a) Los municipios de más de 20.000 habitantes y las mancomunidades de municipios ya constituidas o que se constituyan para la prestación de servicios sociales y que superen el mencionado número de habitantes, tienen la obligación de disponer, como mínimo de un recurso de acogida destinado a atender las demandas de protección y alojamiento temporal de las mujeres víctimas de maltrato en el ámbito doméstico.

b) Las Diputaciones Forales deberán garantizar como mínimo la existencia de un recurso de acogida destinado a atender la demanda de los municipios de menos de 20.000 habitantes, cuando no se hayan constituido en una mancomunidad en los términos indicados en el apartado a). Así mismo, deberán garantizar la existencia de un servicio de acogida inmediata para atender la demanda de sus respectivos Territorios Históricos.

2.– Gizarte Zerbitzuei buruzko urriaren 18ko 5/1996 Legearen 9. artikuluan aurreikusitako zuzeneko ekintzaren arloko eskumenak baliatuz, eta Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen baimena, erregistroa, homologazioa eta ikuskapena arautzen dituen martxoaren 10eko 40/1998 Dekretuaren bigarren xedapen gehigarrian aurreikusitakoaren babesean, Eusko Jaurlaritzak 2.2 artikuluan adierazitako sendatzeko eta gizarteratzeko zentroa jarriko du abian, era esperimentalean. Zentro hori babes-maila eta espezializazio-maila handia eskatzen duten premia bereziak dituzten emakumeei eta haien kargu dauden senitartekoei zuzenduta egongo da, eta intentsitate handiko gizarte-babeseko neurriak aplikatuko ditu.

Aurrekoa gorabehera, harrera-baliabideen arduraren erakundeek beste baliabide edo programa alternatibo batzuetara eraman ahal izango dituzte lotutako problematika bat duten pertsonak, betiere harrera komenigarria eta egokia ez dela ikusten denean.

3.– Foru Aldundiek, Udalek eta Udalen Mankomunitateek, haien mendeko harrera-baliabideak instalatzeko, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren zuzeneko sustapenetan toki-erakundeek besterentzera eta, era horretan, haien eskumeneko gizarte-zerbitzuen ekipamenduak sortzera zuzendutako babes ofizialeko etxebizitzak erreserbara jo ahal izango dute.

- 2.— Alojamiento, alimentación y cuidado integral.
- 3.— Acompañamiento a centros sanitarios, dependencias policiales y judiciales u otras instancias que se consideren necesarias en el momento inicial de la acogida.
- 4.— Notificación al servicio social de base correspondiente y puesta en contacto de las personas acogidas con dicho servicio al objeto de iniciar el proceso de valoración de necesidades de cara a la derivación hacia el recurso o el servicio más idóneo.
- 5.— Coordinación con los servicios sociales e instituciones y recursos implicados en el caso.
- 6.— Dar cobertura a las necesidades básicas de la unidad familiar para conseguir los objetivos propuestos en cada fase del proceso de intervención.
- 7.— Prestar atención individualizada a cada miembro del sistema familiar teniendo en cuenta los aspectos a modificar, así como sus recursos personales. La intervención incorporará factores psicológicos y terapéuticos, si es el caso, así como factores educativos y de integración social, a través fundamentalmente de la vertiente formativa-laboral.
- 8.— Prestar atención familiar centrada en la intervención sobre cada miembro de la familia, así como en ésta última como sistema relacional.
- 9.— Desarrollar grupos de autoayuda que permitan el intercambio de vivencias y proporcionen apoyo y autoconfianza, potenciando la asertividad y la autoafirmación personal.

10.– Harrera-zentroaren berezkoak ez diren, baina profilera eta premietara hobeto egokitzen direlako beharrezkoak izan daitezkeen gizarte-baliabideak eskuratzeko aukera erraztea eta baliabide horiekiko koordinazioa ezartzea. Hona hemen baliabide horiek:

- a) Laguntza psikologikoa;
- b) Laguntza eta esku-hartze psikologikoa, terapeutikoa eta gizarte- eta hezkuntza-arlokoa etxeko eremuan genero-indarkeria jasateko arriskua duten seme-alabentzat, indarkeriari aurrea hartzeko eta ondorioak murrizteko edo txikiagotzeko;
- c) Orientazio eta aholkularitza juridikoa;
- d) Laguntza ekonomikoak;
- e) Laneratzera eta autonomia ekonomikora eta pertsonalera bideratutako prestakuntza-jarduerak;
- f) Haien kargu dauden pertsonen laguntzeko baliabideak eta, bereziki, haurtzaindegiak eta mendeko helduentzako eguneko zaintza-zerbitzuak;
- g) Derrigorrezko eskolatzearen adinean dauden pertsonen berehalako eskolaztea;
- h) Kulturen arteko bitartekotza-programak;
- i) Bidezko hartzen diren beste batzuk.

51. artikulua.– Langile-baliabideak.

1.– Harrera-zentroek zuzendaritzaz arduratutako pertsona bat izan beharko dute. Honako funtzio hauek izango ditu pertsona horrek:

- a) Taldeko kide diren profesionalen lana ikuskatzea.
- b) Langileen etengabeko prestakuntza sustatzea eta planifikatzea.
- c) Funtzionamendu-araudia betetzen dela zaintzea.
- d) Eskubideak errespetatuko direla eta betebeharrak beteko direla bermatzeko beharrezkoak diren neurriak hartzea.
- e) Zentroaren segurtasuna Dekretu honetan aurreikusitako baldintzetan bermatzeko beharrezkoak diren neurriak hartzea.
- f) Gizarte-zerbitzuen sareko gainerakoekin eta, bereziki, oinarritzko gizarte-zerbitzuekin eta esku hartzen duten baliabideekin komunikatzeko eta koordinatzeko bideak ezartzea.
- g) Hezkuntza-zerbitzuekin, zerbitzu sanitarioekin, prestakuntzaren eta enpleguaren ingurukoekin, polizia-zerbitzuekin, judizialekin eta bidezko hartzen diren beste batzuekin komunikatzeko eta koordinatzeko bideak ezartzea.
- h) Kudeaketaren eta administrazioaren arloko zereginak egitea.

2.– Halaber, profesionalekin osatutako diziplina antzeko talde tekniko bat izan beharko du. Profesional ho-

10.– Facilitar el acceso y establecer la coordinación con aquellos recursos sociales no propios del centro de acogida que pudieran resultar necesarios por ajustarse mejor a su perfil y a sus necesidades, tales como:

- a) Ayuda psicológica;
- b) Atención e intervención psicológica, terapéutica y socio-educativa con hijas e hijos expuestos a situaciones de violencia de género en el ámbito doméstico con la finalidad de reducir o minimizar los efectos de la violencia y prevenirla;
- c) Orientación y asesoramiento jurídico;
- d) Ayudas económicas;
- e) Actividades formativas encaminadas a la inserción sociolaboral y a su autonomía económica y personal;
- f) Recursos de atención a las personas que se encuentren a su cargo, en particular, guarderías para los niños y niñas y servicios de atención diurna para los adultos dependientes;
- g) Escolarización inmediata de las personas en edad de escolarización obligatoria;
- h) Programas de mediación intercultural;
- i) Otros que se estimen pertinentes.

Artículo 51.– Recursos de personal.

1.– Los centros de acogida deberán contar con una persona responsable de la dirección que lleve a cabo las siguientes funciones:

- a) Supervisar el trabajo de los y las profesionales miembros del equipo.
- b) Promover y planificar la formación continua del personal.
- c) Velar por el cumplimiento del reglamento de funcionamiento.
- d) Adoptar las medidas necesarias para garantizar el respeto de los derechos y el cumplimiento de las obligaciones.
- e) Adoptar las medidas necesarias para garantizar la seguridad del centro en los términos previstos en este Decreto.
- f) Establecer los cauces de comunicación y coordinación con el resto de la red de servicios sociales, en particular con los servicios sociales de base y con los recursos intervinientes.
- g) Establecer los cauces de comunicación y coordinación con los servicios educativos, sanitarios, de formación y empleo, policiales, judiciales, u otros que se estimen pertinentes.

h) Realizar las tareas de gestión y administración.

2.– Deberá disponer asimismo de un equipo técnico multidisciplinar, compuesto por profesionales en nú-

riek honako funtzio hauek betetzeko beharrezkoa den kopuru eta kualifikazio egokia izango dute:

a) Pertsonen harrera egitea, eta prestasuna eta laguntza psikosoziala eskaintzea.

b) Hartutako emakumeak bidezkoz hartzen diren polizia-zerbitzuetara, zerbitzu sanitarioetara edo judizialekara laguntzea.

c) Hartutako pertsonen gaur egungo gizarte-baliabideei eta gizarte-zerbitzuei buruzko informazioa, orientazioa eta aholkularitza eskaintzea.

d) Familia-unitateko kide bakoitzarekin egingo den lan-planari jarraiki garatu beharrezko laguntza psikosoziala eta psikologia- eta hezkuntza-arloko esku-hartzea ematea.

e) Hartutako pertsonentzat baliagarriak izan daitezkeen erakunde publikoekin eta pribatuekin harremanetan jartzea, eta prestaziorik edo zerbitzurik egokienak lortzeko aukera bideratzea: hartutako haurrentzako eta nerabeentzako ikastetxeak, haurtzaindegiak, mendeko helduak zaintzeko zerbitzuak eta abar.

f) Erreferentziako gizarte-zerbitzuari eta oinarrizko gizarte-zerbitzuari egindako kudeaketan berri ematea, eta kasuaren balioespenean eta beste baliabide batera bideratzeko orientazioan laguntzea.

3.- Talde teknikoko langileek urteko egun guztietan eta eguneko hogeita lau orduetan langile espezializatuak egongo direla bermatzeko beharrezkoak diren neurriak hartu beharko dira. Asteburuetan, jaieguneetan eta gauez lan egiteko txandak ezarriko dira.

52. artikulua.- Mantentze-zerbitzua.

Harrera-zentroak bere instalazio guztiak erabiltzeko eta bizitzeko baldintza onetan mantenduko dituela bermatu beharko du.

53. artikulua.- Barne-araudia.

1.- Harrera-zentroek honako alderdi hauek jasoko dituen barne-araudi bat izan beharko dute:

- a) Baliabidearen helburuak;
- b) Sartzeko baldintzak;
- c) Onarpen-prozedura eta baja-prozedura;
- d) Plaza kopurua;
- e) Funtzionamenduari eta bizikidetzari buruzko arauak;
- f) Erabiltzaileen, eta mendeko pertsonen eta/edo laguntzaileen eskubideak eta betebeharrak;
- g) Profesionalen eskubideak eta betebeharrak;
- h) Erabiltzaileen partaidetza ekonomikoa;
- i) Zerbitzuaren funtzionamenduan parte hartzeko mekanismoak;

mero suficiente y con la cualificación necesaria e idónea, para realizar las siguientes funciones:

a) Acoger a las personas y ofrecerles disponibilidad y atención psicossocial.

b) Acompañar a las mujeres acogidas a los servicios policiales, sanitarios o judiciales que se estimen pertinentes.

c) Informar, orientar y asesorar a las personas acogidas en cuanto a los recursos y servicios sociales existentes.

d) Prestar la atención psicossocial y la intervención psicoeducativa a desarrollar conforme al plan de trabajo con cada miembro de la unidad familiar.

e) Ponerse en contacto con las entidades públicas y privadas cuya intervención pudiera ser de utilidad para las personas acogidas y tramitar el acceso a las prestaciones o servicios más idóneos: centros de enseñanza para los niños, niñas y adolescentes acogidos, guarderías, servicios de atención a personas mayores dependientes, u otros.

f) Mantener al servicio social de referencia y al servicio social de base informado de las gestiones realizadas y apoyarle en la valoración del caso y en la orientación de su derivación hacia otro recurso.

3.- Deberán adoptarse las medidas necesarias para que el personal del equipo técnico garantice la presencia de personal especializado todos los días del año, las veinticuatro horas del día, estableciéndose permanencias los fines de semana, festivos y noches, con turnos rotativos.

Artículo 52.- Servicio de mantenimiento.

El centro de acogida deberá garantizar el mantenimiento de todas sus dependencias en buenas condiciones de uso y habitabilidad.

Artículo 53.- Reglamento de régimen interno.

1.- Los centros de acogida deberán contar con un reglamento de régimen interno en el que se harán constar:

- a) Objetivos del recurso;
- b) Requisitos de acceso;
- c) Procedimiento de admisión y baja;
- d) Número de plazas;
- e) Normas de funcionamiento y convivencia;
- f) Derechos y obligaciones de las usuarias y de las personas dependientes y/o acompañantes;
- g) Derechos y deberes de las personas profesionales;
- h) Participación económica de las personas usuarias;
- i) Mecanismos de participación en el funcionamiento del servicio;

j) Erreklamazio-prozedura:

k) Erreklamazio-orriak egongo dira, eta kexen eta hartutako neurrien erregistro egokia bermatuko da;

l) Iradokizunen gutunontzia.

2.– Sartu aurretik, araudiaren kopia bat eman behar-ko zaie erabiltzaileei, eta hitzeko informazioa eman.

54. artikulua.– Egonaldiaren amaiera.

1.– Egonaldiaren amaiera honako zirkunstantzia hauek eragingo dute:

a) Sartzeko lortutako baldintzak galdu edo amaitu izana.

b) 2.4 artikuluan xedatutakoari jarraiki ezarritako egonaldiaren epea amaitu izana.

c) Ezarritako betebeharrak bete ez izana.

d) Beste ostatu-alternatiba egoki bat.

e) Interesdunak esanbidez uko egin izana.

2.– Hartutako pertsonak astebeteko epea izango du-te harrera-zentroa uzteko, aurreko idatz-zatietan adie-razitako amaitzeko arrazoiren bat agertuz gero. Epe hori igaro ondoren etxebizitza edo gela utzi ezean, utza-razteko bidezkoak diren lege-neurriak hasi ahal izango dira, betiere Herri Administrazioen Araubide Juridi-koaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroa-ren 26ko 30/1992 Legean aurreikusitakoa errespetatu-ta.

3.– Aurrekoa gorabehera, c) kasua agertzen bada eta ez-betetzea 7.2.k) artikuluari lotuta badago, hartutako pertsonak zentroa utzi beharko dute berehala.

2. ATALA BALDINTZA MATERIALAK

55. artikulua.– Kokapena.

1.– Harrera-zentroek hartutako pertsonen identita-tea zehurtiaz gordetzeko moduko hiriguneetan koka-tuta egon beharko dute.

2.– Ekipamendu sanitarioetara eta zerbitzu komu-nitarioetara joateko garraio publikoak hurbil izan be-harko dituzte.

3.– Zerbitzua kokatuko den eremuak segurtasunari eta osasungarritasunari lotutako baldintzak beteko di-tu, eta inguruak ongi argiztatuta egongo dira.

56. artikulua.– Antolamendua eta ezaugarri oroko-rrak.

Harrera-zentroak babesteko, laguntzeko eta esku-hartze espezializaturako zerbitzuak zein bizileku-ere-mua izan beharko ditu.

j) Procedimiento de reclamaciones;

k) Existencia de hojas de reclamaciones, garantizán-dose el adecuado registro de las quejas y de las medi-das adoptadas;

l) Buzón de sugerencias.

2.– Se deberá proporcionar una copia del reglamen-to con anterioridad al ingreso e informar verbalmente a las personas usuarias.

Artículo 54.– Finalización de la estancia.

1.– La finalización de la estancia traerá causa de las siguientes circunstancias:

a) Pérdida o finalización de los requisitos de acceso.

b) Término del plazo de estancia establecido de con-formidad con lo dispuesto en el apartado 2.4.

c) Incumplimiento grave de los deberes establecidos.

d) Existencia de otra alternativa adecuada de aloja-miento.

e) Renuncia expresa de la persona interesada.

2.– Las personas acogidas tendrán un plazo de 1 se-mana para abandonar el centro de acogida en caso de concurrir alguna de las causas de finalización indicadas en los apartados anteriores. Si, transcurrido dicho pla-zo, no se produjera el abandono del piso o de la habi-tación, se podrán iniciar las medidas legales oportunas para su desalojo, con respeto siempre de lo previsto en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Ju-rídico de las Administraciones Públicas y del Procedi-miento Administrativo Común.

3.– No obstante lo anterior, si se produjera el supues-to c) y el incumplimiento se refiere al artículo 7.2.k), en el que las personas acogidas deberán abandonar el centro de forma inmediata.

SECCIÓN 2.ª REQUISITOS MATERIALES

Artículo 55.– Ubicación.

1.– Los centros de acogida deberán estar emplaza-dos en núcleos urbanos que garanticen la discreción de la identidad de las personas acogidas.

2.– Deberán contar, a proximidad, con transportes pú-blicos que faciliten el acceso a los equipamientos sa-nitarios y al conjunto de los servicios comunitarios.

3.– La zona de ubicación del servicio reunirá las de-bidas condiciones de seguridad y salubridad, y contará con alrededores bien iluminados.

Artículo 56.– Organización y características gene-rales.

El centro de acogida deberá contar tanto con servi-cios de apoyo, acompañamiento e intervención especia-lizada, como con zona residencial.

57. artikulua.– Babesari eta esku-hartze espezializatuari lotutako funtzioetarako instalazioen ezaugarriak.

Zentroak honako hauek izan beharko ditu:

a) Administrazio-eremua; harrerari, administrazioari, zuzendaritzari eta kudeaketari lotutako jarduerak egiteko erabiliko da. Erabiltzaileei buruzko informazioa konfidentzialtasun-baldintzetan gordeko dela bermatzeko beharrezkoa den diseinua eta ekipamendua izan beharko du.

b) Arreta espezializatuko eremua; harrera-zentroko talde teknikoak zuzeneko arretari lotutako lanbide-jarduerak egiteko erabiliko da. Erabiltzaileekin egiten diren elkarrizketen edo kontsulten pribatutasuna bermatzeko bulego edo areto bat izan beharko du gutxienez.

58. artikulua.– Bizitegi-eremuaren ezaugarriak.

1.– Bizitegi-eremuak 30 plaza izango ditu gehienez, eta logela bikoitzetan eta indibidualetan antolatuta egongo dira.

2.– Oro har, osasunaren, arkitekturaren, eta segurtasunaren eta higiearen arloan indarrean dagoen legerian ezarritako baldintzak bete beharko dituzte instalazioek.

3.– Oso kontuan hartuko da instalazioen eta altzarien mantentzea, kontserbazioa eta, hala badagokie, konponketa, narriadurarik izan ez dezaten. Instalazioak aldizka garbitu eta desinfektatuko dira.

4.– Logelak.

a) Logela indibidualen gutxienerako azalera 9 m² izango da, eta logela bikoitza, berriz, 11 m².

b) Logela bakoitzean familia-unitate bakarra egongo da, eta logela bikoitzetan familia bereko 4 kide egongo dira gehienez. Familia-unitatearen tamainagatik edo ezaugarri jakin batzuegatik logela bat baino gehiago erabili behar bada, alboko logeletan edo logela komunikatuetan kokatzeko beharrezkoak diren neurriak hartuko dira, familiaren batasuna eta pribatutasuna zaintzearen.

c) Gela bakoitzak kanpora emango duen leiho bat eta berokuntza-sistema bat izan beharko ditu. Berokuntza horri dagokionez, ukitzean erredurak eragin ditzaketan bero-iturriak ez dira, ezein kasutan, erabiltzaileengandik hurbil jarriko.

d) Gelek ohea(k), armairua(k), gau-mahaia(k), mahaia(k) eta aulkia(k) izango dituzte. Altzariak eta ekipamenduek haurrentzako arriskuak saihesteko beharrezkoak diren babes-elementuak izan beharko dituzte (korronte-hartuneen babesgarriak, ertz biribilduak dituzten altzariak edo ertzen babesgarriak altzarietan, eta beharrezkotzat hartzen diren beste babes-elementu batzuk).

Artículo 57.– Características de las dependencias destinadas a funciones de apoyo e intervención especializada.

El centro deberá contar con:

a) Zona de administración, destinada al ejercicio de actividades de recepción, administración, dirección y gestión: deberá contar con el diseño y el equipamiento necesarios para garantizar la conservación de la información referida a las personas usuarias en condiciones de confidencialidad.

b) Zona de atención especializada, destinada a las actividades profesionales de atención directa del equipo técnico del centro de acogida: deberá contar al menos con un despacho o sala que garantice la privacidad de las entrevistas o de las consultas con las personas usuarias.

Artículo 58.– Características de la zona residencial.

1.– La zona residencial contará como máximo con 30 plazas, organizadas en habitaciones dobles e individuales.

2.– Con carácter general, las instalaciones deberán cumplir las condiciones estipuladas en la legislación vigente en materia sanitaria, arquitectónica y de seguridad e higiene.

3.– Se prestará especial atención al mantenimiento, conservación y, en su caso, reparación de las instalaciones y mobiliario, con el objetivo de evitar su deterioro. Se asegurará periódicamente la limpieza y desinfección de las dependencias.

4.– Habitaciones

a) La superficie de las habitaciones será como mínimo de 9 m² para las individuales y de 11 m² para las dobles.

b) Cada habitación alojará a una única unidad familiar, pudiendo albergar las habitaciones dobles, hasta 4 miembros de la misma familia. Si el tamaño, o ciertas características de la unidad familiar hicieran necesario el uso de más de una habitación, se adoptarán las medidas necesarias para ubicarles en habitaciones comunicadas o contiguas a fin de preservar la unidad y privacidad familiar.

c) Cada habitación deberá contar con una ventana al exterior y con un sistema de calefacción que en ningún caso podrá poner al alcance de las personas usuarias fuentes de calor susceptibles de producir quemaduras por contacto.

d) Estarán equipadas con cama(s), armario(s), mesilla(s) de noche, mesa(s) y silla(s) y en su caso cuna. El mobiliario y el equipamiento deberán contar con los elementos de protección necesarios para evitar riesgos en los niños/as (protectores de tomas de corriente, muebles de esquinas redondeadas o protectores de esquinas en los muebles, y otros elementos de protección que se estimen necesarios).

e) Dekorazioaren, altzarien eta ekipamenduen ezagarririk giro atsegina sortzen lagundu beharko dute.

5.– Higiene-zerbitzuak.

Gutxienez konketa bat, komun-ontzi bat eta dutxa edo bainuontzi bat beharko dira 4 erabiltzaileko.

6.– Jardueretarako eta elkarbizitzarako guneak.

Zentroak elkarbizitzarako eta jardueretarako espazio komunak izan beharko ditu, hala nola sukalde-jangela, egongela, jarduera-eremuak eta haur-jolasen eremua. Azken horrek Haurrak eta Nerabeak Zaindu eta Babes-teko otsailaren 18ko 3/2005 Legean aisia-eremuetarako aurreikusitako segurtasun-baldintzak bete beharko ditu. Gune horiek 3,5 metroko azalera erabilgarria izan beharko dute erabiltzaileko.

59. artikulua.– Segurtasun-gailuak.

1.– Zerbitzuetarako eremuek zein bizitegi-eremuek telefonoak, telealarma-zerbitzuak edo beste alarma-gailu batzuk izango dituzte, hartutako pertsonen bizitzarako edo segurtasun fisikorako arriskutsuak diren egoerak agertzen direnean berehala laguntza eskatzeko.

2.– Zentroak ate blindatua edo segurtasunekoia izango du sarreran.

3.– Zentroak suteen aurkako ekipamendua izango du, eta, bereziki, ke-detektagailuak eta su-itzalgailuak.

60. artikulua.– Irigarritasuna.

1.– Harrera-zentroak irigarriki izango dira, arkitektura-oztoporik edo komunikazio-oztoporik gabe.

2.– Zentroan dauden plaza guztien % 4k indarrean dagoen irigarritasunari buruzko araudian gurpil-aulkian ibiltzen diren edo mugikortasun murriztua duten pertsonentzat erreserbatutako etxebizitzetarako eta ezintasun sensoriala duten pertsonentzako etxebizitzetarako araututako baldintzak bete beharko ditu. Dauden plaza guztien % 4 bat baino gutxiago bada, gutxienez gela bat eta bainugela bat irigarriki izatea eta arkitektura-oztoporik ez izatea bermatu beharko da.

V. KAPITULUA
HOMOLOGAZIOA

61. artikulua.– Homologatzeko irizpideak.

Aginduzko baimena lortzeko baldintza materialak eta funtzionalak betetzeaz gain, etxeko eremuan tratu txarrak jasaten dituzten emakumeentzako titulartasun pribatuko harrera-baliabideek kalitateari, eraginkortasunari, kostu ekonomikoari eta sozialari lotutako honako irizpide hauei jarraitu beharko diete borondatez homologazioa eskatzen dutenean:

e) Las características de la decoración, del mobiliario y del equipamiento deberán ser susceptibles de contribuir a crear un ambiente acogedor.

5.– Servicios higiénicos.

Se contará como mínimo con un lavabo, un inodoro y una ducha o bañera por cada 4 personas usuarias.

6.– Espacios de actividades y convivencia.

El centro deberá contar con espacios comunes destinados a convivencia y actividades, tales como cocina comedor, sala de estar, zonas de actividades, y zona de juegos infantiles, debiendo ésta última reunir las condiciones de seguridad previstas en la Ley 3/2005, de 18 de febrero, de Atención y Protección a la Infancia y a la Adolescencia para las zonas recreativas. Estos espacios deberán tener en su conjunto una superficie útil de 3,5 metros por persona usuaria.

Artículo 59.– Dispositivos de seguridad.

1.– Tanto las zonas destinadas a servicios como las zonas residenciales dispondrán de teléfonos, servicios de telealarma u otros dispositivos de alarma para poder solicitar ayuda de forma inmediata cuando se produzcan situaciones de riesgo para la vida o la integridad física de las personas acogidas.

2.– El centro dispondrá de puerta de entrada blindada o de seguridad.

3.– El centro dispondrá de equipamiento contra incendios, en particular de detectores de humo y extintores.

Artículo 60.– Accesibilidad.

1.– Los centros de acogida deberán ser accesibles, no pudiendo existir en ellos barreras arquitectónicas o de comunicación.

2.– El 4% del total de plazas existentes en el centro deberán cumplir los requisitos regulados en la normativa de accesibilidad vigente en relación con las viviendas reservadas a personas usuarias de sillas de ruedas o con movilidad reducida y con las viviendas destinadas a personas con discapacidad sensorial. En el supuesto de que el 4% del total de plazas existentes fuese inferior a uno, se ha de garantizar que al menos una de las habitaciones y de los baños completos sea accesible y carezcan de barreras arquitectónicas.

CAPÍTULO V
HOMOLOGACIÓN

Artículo 61.– Criterios de homologación.

Además del cumplimiento de los requisitos materiales y funcionales para la obtención de la preceptiva autorización, los recursos de acogida para mujeres víctimas de maltrato en el ámbito doméstico de titularidad privada que voluntariamente soliciten su homologación deberán ajustarse a los siguientes criterios de calidad, eficacia, coste económico y social:

a) Baimena lortzeko baldintzetan kontuan hartzen ez diren, baina erabiltzaileen bizi-kalitatea hobetu dezaketan instalazioak edo guneak izatea.

b) Instalazioak erabiltzaileen ongizatea hobetuko duten ekipamenduekin hornitzea.

c) Administrazio eskudunak ikuskapen-funtzioak betetzean proposatzen dituen iradokizunak betetzea.

d) Ebaluazio-plan propioa izatea, edo, halakorik ezean, urtebeteko gehieneko epean egiteko konpromisoa. Administrazio eskudunari plan horren jarraipenaren berri eman beharko zaio, urtean behin.

e) Hartutako pertsonen zaintzan esku hartzen duten langileentzako etengabeko prestakuntzako programa bat.

f) Langileen txandakatze-maila txikia.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lebenengoa.– Genero-indarkeriari lotutako beste egoera batzuetarako laguntza.

Salbuespen gisa, eta behin-behineko izaerarekin laguntza gizarte-harrerako zentroei buruzko araudian babestuta egon arte, Dekretu honetan araututako zerbitzuek etxekoaz bestelako eremuetan genero-indarkeriako egoerak jasaten dituzten emakumeak ere hartu ahal izango dituzte, betiere horrelako zerbitzu bat behar badute.

Bigarrena.– Funtzionamendu-baimena.

1.– Etxeko eremuan tratu txarrak jasaten dituzten emakumeentzako harrera-baliabideen titular diren eta Dekretu hau indarrean jartzean funtzionamenduan dauden erakunde pribatuek aginduzko funtzionamendu-baimena eskatu beharko diote Administrazio eskudunari urtebeteko epean, adierazitako datatik aurrera kontatzen hasita. Aldez aurretik, 2. artikuluan ezarritako sailkapenaren arabera aplikatu beharreko baldintza materialak eta funtzionalak bete beharko dituzte, honako baldintza hauen kasuan izan ezik:

Berehalako harrera-zerbitzuei dagokienez 21., 22., 23. eta 24. artikuluetan kokapenari, antolamendu-modalitatei, instalazioen ezaugarriei, eta gehieneko edukierari eta azalerari lotuta adierazitako baldintzak.

Harrera-etxebizitzetara dagokienez 37. eta 38. artikuluetan hurrenez hurren kokapenari, eta gehieneko edukierari eta azalerari lotuta adierazitako baldintzak.

Harrera-zentroei dagokienez 55.1 eta 58.1 artikuluetan kokapenari, antolamenduari, instalazioen ezaugarriei, eta gehieneko edukierari eta azalerari lotuta adierazitako baldintzak.

a) Existencia de dependencias o espacios no contemplados en los requisitos de autorización, pero que pudieran favorecer la mejora en la calidad de vida de las personas usuarias.

b) Dotación de sus dependencias con equipamientos que aumenten el bienestar de las personas usuarias.

c) Cumplimiento de las sugerencias propuestas por la Administración competente en el ejercicio de las funciones de inspección.

d) Existencia de un plan de evaluación propio -o, en su defecto, compromiso de establecerlo en el plazo máximo de un año-, cuyo seguimiento deberá ponerse en conocimiento de la Administración competente con periodicidad anual.

e) Programa de formación permanente para el personal que interviene en la atención de las personas acogidas.

f) Bajo índice de rotación de personal.

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

Primera.– Atención a otras situaciones de violencia de género.

Excepcionalmente, y con carácter provisional a la espera de que su atención quede amparada en la regulación de los centros de acogida social, los servicios regulados en el presente Decreto podrán acoger a mujeres víctimas de situaciones de violencia de género en ámbitos distintos al doméstico, siempre que precisen de un servicio de estas características.

Segunda.– Autorización de funcionamiento.

1.– Las entidades privadas titulares de los recursos de acogida para mujeres víctimas de maltrato en el ámbito doméstico que se encuentren en funcionamiento a la entrada en vigor del presente Decreto deberán solicitar de la Administración competente, en el plazo de un año a partir de la citada fecha, la preceptiva autorización de funcionamiento, previo el cumplimiento de los requisitos materiales y funcionales que sean de aplicación de acuerdo con la clasificación establecida en el artículo 2, con la excepción de los siguientes requisitos:

Los requisitos de ubicación, modalidades organizativas, características de las dependencias, capacidad máxima y superficie, contemplados en los artículos 21, 22, 23 y 24, en relación con los servicios de acogida inmediata.

Los requisitos de ubicación, capacidad máxima y superficie, contemplados respectivamente en los artículos 37 y 38, en relación con los pisos de acogida.

Los requisitos de ubicación, organización y características de las dependencias, capacidad máxima y superficie, contemplados respectivamente en los artículos 55.1 y 58.1, en relación con los centros de acogida.

Ordura arte, eta eskaera ebatzi bitartean, etxeko eremuan tratu txarrak jasaten dituzten emakumeentzako harrera-baliabideek ohiko funtzionamenduarekin jarraituko dute.

Urtebeteko epea igaro ondoren harrera-baliabideen erakunde titularrek adierazitako baldintzak bete ez badituzte, edota bete arren aginduzko funtzionamendubaimena eskatu ez badute, baliabidea deuseztatu egingo du Administrazio eskudunak.

2.– Eraikuntzari lotutako arrazoiak edo bestelakoak direla-eta etxeko eremuan tratu txarrak jasaten dituzten emakumeentzako harrera-baliabideek Dekretu hau indarrean jarri eta urtebeteko epean 1. idatz-zatian aurreikusitakoaren arabera aplikagarriak zaizkien baliabide material eta funtzional batzuk betetzen ez badituzte, eta ikuskapen-txostenak baldintza horiek erabiltzaileen bizi-kalitatea kaltetu dezakeen alderdi-sanitario-rik edo segurtasun-alderdirik eraginpean hartzen ez dutela zehazten badu, Administrazio eskudunak behin behingoz baimendu ahal izango ditu hiru urteko gehieneko epean.

Hiru urteko epea igaro ondoren baliabide horien erakunde titularrek tipologiaren arabera aplikagarriak zaizkien baldintza materialak edo funtzionalak bete ez badituzte, edota bete arren aginduzko eta behin betiko funtzionamendu-baimena eskatu ez badute, baliabidea deuseztatu egingo du Administrazio eskudunak.

Hirugarrena.– Homologazioa.

1.– Etxeko eremuan tratu txarrak jasaten dituzten emakumeentzako harrera-baliabideen erakunde titularrak (Dekretu honen Bigarren Xedapen Iragankorraren 1. idatz-zatian adierazitakoak) Dekretu hau indarrean jartzean EAEko edozein herri-administrazioarekin itunduta edo hitzartuta badaude, aginduzko homologazioa eskatu beharko diote Administrazio eskudunari urtebeteko epean, baimenaren datatik aurrera kontatzen hasita. Aldez aurretik, Dekretu honen V. kapituluan ezarritako irizpideak bete beharko dituzte.

Ordura arte, eta eskaera ebatzi bitartean, beren itun-erregimenarekin jarraituko dute.

Urtebeteko epea igaro ondoren baliabide horien erakunde titularrek homologaziorako irizpideak bete ez badituzte, edota bete arren homologazioa eskatu ez badute, itun-erregimena edo hitzarmen-erregimena deuseztatu egingo du Administrazio eskudunak.

2.– Etxeko eremuan tratu txarrak jasaten dituzten emakumeentzako harrera-baliabideen (Dekretu honen Bigarren Xedapen Iragankorraren bigarren idatz-zatian adierazitakoen) behin-behineko baimena indarrean dagoen bitartean, Administrazio eskudunak behin behingoz homologatu ahal izango ditu, betiere aldez aurretik itun edo hitzarmen bat badago.

Hasta entones, y mientras se resuelva su solicitud, los recursos de acogida para mujeres víctimas de maltrato en el ámbito doméstico continuarán con su funcionamiento habitual.

Si transcurrido dicho plazo de un año, las entidades titulares de dichos recursos no hubieran cumplido los requisitos mencionados, o habiéndolos cumplido no hubieren solicitado la preceptiva autorización de funcionamiento, la Administración competente procederá al cierre del recurso.

2.– Si por razones técnicas de construcción o de otra índole los recursos de acogida para mujeres víctimas de maltrato en el ámbito doméstico, en el plazo de un año desde la entrada en vigor de este Decreto, no cumplen algunos de los requisitos materiales y funcionales que sí les son de aplicación atendiendo a lo previsto en el apartado 1, y siempre que el informe de la inspección especifique que no afectan a aspectos sanitarios o de seguridad que redunden gravemente en la calidad de vida de las personas usuarias, la Administración competente podrá autorizarlos provisionalmente por un plazo máximo de tres años.

Si transcurrido este plazo de tres años las entidades titulares de dichos recursos no hubieran cumplido los requisitos materiales o funcionales que les sean de aplicación en atención a su tipología, o habiéndolos cumplido no hubieren solicitado la preceptiva autorización definitiva de funcionamiento, la Administración competente procederá al cierre del recurso.

Tercera.– Homologación.

1.– Las entidades titulares de los recursos de acogida para mujeres víctimas de maltrato en el ámbito doméstico a las que se refiere el apartado 1 de la Disposición Transitoria Segunda de este Decreto que a la fecha de su entrada en vigor estuvieren concertados o convenidos con cualquier Administración Pública Vasca deberán solicitar de la Administración competente, en el plazo de un año a partir de la fecha de autorización, la preceptiva homologación, previo el cumplimiento de los criterios que se establecen en el Capítulo V del presente Decreto.

Hasta entones, y mientras se resuelve su solicitud, continuarán con el régimen de concertación que tuvieron.

Si transcurrido dicho plazo de un año las entidades titulares de dichos recursos no hubieran cumplido los criterios para su homologación, o habiéndolos cumplido no la hubieren solicitado, la Administración competente rescindiré el régimen de concertación o convenio existente.

2.– Durante el plazo de vigencia de la autorización provisional de los recursos de acogida para mujeres víctimas de maltrato en el ámbito doméstico a que se refiere el apartado segundo de la Disposición Transitoria Segunda de este Decreto, la Administración competente podrá homologarlos provisionalmente, siempre y cuando existiere una previa concertación o convenio.

Hiru urteko epea igaro ondoren baliabide horien erakunde titularrek behin betiko homologaziorako irizpideak bete ez badituzte, edota bete arren homologazioa eskatu ez badute, itun-erregimena deuseztatu egingo du Administrazio eskudunak.

Laugarrena.– Titulartasun publikoa duten egungo zerbitzuei aplikatu beharreko baldintzak.

1.– Etxeko eremuan tratu txarrak jasaten dituzten emakumeentzako harrera-baliabideen titularrak diren erakunde publikoak Dekretu hau indarrean jartzean funtzionamenduan badaude, 2. artikuluan ezarrizko sailkapenaren arabera aplikagarriak zaizkien baldintza materialak eta funtzionalak bete beharko dituzte, honako hauek izan ezik:

Berehalako harrera-zerbitzuei dagokienez 21., 22., 23. eta 24. artikuluetan kokapenari, antolamendu-modalitateei, instalazioen ezaugarriei, gehieneko edukierari eta azalerari lotuta adierazitako baldintzak.

Harrera-etxebizitzetara dagokienez 37. eta 38. artikuluetan hurrenez hurren kokapenari, eta gehieneko edukierari eta azalerari lotuta adierazitako baldintzak.

Harrera-zentroei dagokienez 55.1 eta 58.1 artikuluetan kokapenari, antolamenduari, instalazioen ezaugarriei, eta gehieneko edukierari eta azalerari lotuta adierazitako baldintzak.

2.– Eraikuntzari lotutako arrazoiak edo bestelakoak direla-eta etxeko eremuan tratu txarrak jasaten dituzten emakumeentzako harrera-baliabideek 1. idatz-zatian aurreikusitakoaren arabera aplikagarriak zaizkien baliabide material eta funtzional batzuk betetzen ez badituzte, eta ikuskapen-txostenak baldintza horiek erabiltzaileen bizi-kalitatea kaltetu dezakeen alderdi-sanitariorik edo segurtasun-alderdirik eraginpean hartzen ez dutela zehazten badu, beharrezkoak diren egokitzeak egiteko bost urteko epea izango dute, Dekretu hau indarrean jartzen den egunetik aurrera kontatzen hasita.

Bosgarrena.– Etxeko eremuan tratu txarrak jasaten dituzten emakumeak sendatzeko eta gizarteratzeko intentsitate handiko zentroaren izaera esperimentalak.

Etxeko eremuan tratu txarrak jasaten dituzten emakumeak sendatzeko eta gizarteratzeko intentsitate handiko zentroa esperimentalak izango da, eta bi urteko epean izango du izaera hori, Dekretu honen arabera Eusko Jaurlaritzak sortu beharreko zentroa funtzionamenduan jartzen denetik aurrera kontatzen hasita. Epe hori igaro ondoren, ebaluazio kualitatibo batean oinarrituta laguntza-modalitatea alternatiba egokia eta bidegarria dela ikusten bada, bidezko baldintza materialak eta funtzionalak arautu beharko dira.

Si transcurrido dicho plazo de tres años las entidades titulares de dichos recursos no hubieran cumplido los criterios para su homologación definitiva o habiéndolos cumplido no la hubieren solicitado, la Administración competente rescindiré el régimen de concertación existente.

Cuarta.– Requisitos aplicables a los servicios de titularidad pública ya existentes.

1.– Las entidades públicas titulares de recursos de acogida para mujeres víctimas de maltrato en el ámbito doméstico que se encuentren en funcionamiento a la entrada en vigor del presente Decreto deberán cumplir los requisitos materiales y funcionales que sean de aplicación de acuerdo con la clasificación establecida en el artículo 2, con la excepción de los siguientes:

Los requisitos de ubicación, modalidades organizativas, características de las dependencias, capacidad máxima y superficie, contemplados en los artículos 21, 22, 23 y 24, en relación con los servicios de acogida inmediata.

Los requisitos de ubicación, capacidad máxima y superficie, contemplados respectivamente en los artículos 37 y 38, en relación con los pisos de acogida.

Los requisitos de ubicación, organización y características de las dependencias, capacidad máxima y superficie, contemplados respectivamente en los artículos 55.1 y 58.1, en relación con los centros de acogida.

2.– Si por razones técnicas de construcción o de otra índole los recursos de acogida para mujeres víctimas de maltrato en el ámbito doméstico no cumplen algunos de los requisitos materiales y funcionales que sí les son de aplicación atendiendo a lo previsto en el apartado 1, y siempre que el informe de la inspección especifique que no afectan a aspectos sanitarios o de seguridad que redunden gravemente en la calidad de vida de las personas usuarias, dispondrán de un plazo de cinco años a contar de la fecha de entrada en vigor de este Decreto para introducir las adaptaciones necesarias.

Quinta.– Carácter experimental del centro de recuperación e integración social de alta intensidad para mujeres víctimas de maltrato en el ámbito doméstico.

El centro de recuperación e integración social de alta intensidad para mujeres víctimas de maltrato en el ámbito doméstico tendrá carácter experimental y conservará esta naturaleza durante un plazo de dos años a contar de la entrada en funcionamiento del centro cuya creación se encomienda al Gobierno Vasco en el presente Decreto. Si, al cabo de ese plazo, se considerara, sobre la base de una evaluación cualitativa, que la modalidad de atención así desarrollada constituye una alternativa adecuada y viable, se deberá proceder a la regulación de los requisitos materiales y funcionales que le correspondan.

AZKEN XEDAPENAK.— Indarrean jartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2007ko irailaren 11n.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Exebizitza eta Gizarte Gaietako sailburua,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.

Agintariak eta Langileria

Oposaketak eta Lehiaketak

GARRAIO ETA HERRI LAN SAILA

5312

AGINDUA, 2007ko irailaren 18koa, Garraio eta Herri Lan sailburuarena, Garraio eta Herri Lan Sailean hutsik dagoen lanpostu bat izendapen askez betetzeko deialdi publikoa iragartzeko dena.

Sail honetan goi-kargudunaren idazkari izateko lanpostu bat hutsik dago. Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 46.2.c) artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritzak aldeko irizpena eman ondoren, agindu honen eranskinean zehazten den lanpostua izendapen askez betetzeko deialdia iragartzea erabaki du sail honek. Hona hemen deialdiaren

OINARRI-ARAUAK:

Lebenengoa.— Agindu honen bidez iragartzen den lanpostua, aginduaren eranskinean lanpostu hori betetzeko eskatzen diren baldintzak betetzen dituzten karrerako funtzionarioek eska dezakete.

Bigarrena.— Parte hartu nahi dutenek Garraio eta Herri Lan Saileko Zerbitzu Zuzendaritzara bidali beharko dituzte eskabideak, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera hamabost egun baliiodunekoa epean, eta eskabidean datu pertsonalak eta egun lanpostua non duten adierazi beharko dituzte.

DISPOSICIÓN FINAL.— Entrada en vigor.

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 11 de septiembre de 2007.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.

Autoridades y Personal

Oposiciones y Concursos

DEPARTAMENTO DE TRANSPORTES Y OBRAS PÚBLICAS

5312

ORDEN de 18 de septiembre de 2007, de la Consejera de Transportes y Obras Públicas, por la que se anuncia convocatoria pública para la provisión, por el sistema de libre designación, de un puesto de trabajo vacante en el Departamento de Transportes y Obras Públicas.

Estando vacante un puesto de «Secretario/a de Alto Cargo» de este Departamento y conforme a lo dispuesto en el artículo 46.2.c) de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca (BOPV de 28 de julio de 1989) y previo informe favorable de la Dirección de Función Pública, este Departamento acuerda anunciar la provisión, por el procedimiento de libre designación, del puesto de trabajo que se relaciona en el anexo de la presente Orden, con arreglo a las siguientes

BASES:

Primera.— El puesto de trabajo que se convoca a través de la presente Orden podrá ser solicitado por el personal funcionario de carrera que reúnan los requisitos exigidos para el desempeño del mismo, establecidos en el anexo de la presente Orden.

Segunda.— Los/as interesados/as dirigirán sus solicitudes, en las que harán constar sus datos personales y destino actual, a la Dirección de Servicios del Departamento de Transportes y Obras Públicas dentro del plazo de 15 días hábiles contados a partir del siguiente al de la publicación de la presente Orden en el Boletín Oficial del País Vasco.